2012 CONTIGO AVANZAMOS | Gobierno de Navarra

NOTA DE PRENSA

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD, DEPORTE Y JUVENTUD

DESARROLLO RURAL, INDUSTRIA, EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

# Barcina Lehendakariak Espainian dagoen Japoniako enbaxadoreari harrera egin dio

*Europara egindako lehen espedizio japoniarraren 400. urteurrena gogoratzeko 2013 eta 2014an ospatuko den Japoniaren Urteaz hitz egin dute, besteak beste*

Jueves, 05 de julio de 2012



Barcina Lehendakaria Japoniako enbaxadoreari harrera egiten.

Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcinak Espainian dagoen Japoniako enbaxadore Satoru Satoh-ri harrera egin dio gaur Nafarroako Jauregiko bulego ofizialean. Enbaxadorea autonomia erkidego ezberdinetan bisitak egiten ari da karguan jarri zutenetik lehen hilabeteak pasa direla eta.

Bilkuran bi agintariek Espainiako Japoniaren Urtea aztertu dute, 2013ko ekainaren eta 2014ko uztailaren artean burutuko dena Europara egindako lehen espedizio japoniarraren 400. urteurrena ospatzeko; espedizio hori 1613 eta 1614an egin zen Espainiako errege Felipe III.a eta Paulo V aita santua bisitatzeko.

Urteurren hori dela eta, zenbait jarduera egingo dira Espainiako hainbat eskualdetan eta, haien artean, baita Foru Komunitatean ere, Japoniarekin lotura estua duena: duela 32 urte Iruñea eta Yamaguchi hiri japoniarra –Francisco de Javier denbora gehien bizi zen lekua– senidetu ziren eta duela 10 urte Nafarroak eta Yamaguchi-ko Prefekturak gauza bera egin zuten.